

Balearetako eskoletan katalanak erdigunea hartu ahal izango du berriz

2013KO IKASTURTETIK, Balear Uharteetako ikasleak katalanean, gaztelanian eta ingelesean oinarritutako hizkuntza ereduan ari dira ikasten, 80ko hamarkadaz geroztik katalanezko murgiltze ereduan aritu izan baziren ere. Auzitegi Nagusiak indargabetu egin du ordea, hiru hizkuntzako eredua.

Irakasleen Batzordeko kide Miquel Àngel Tortellek *Diagonal* hedabideari adierazi dionez, “poz ikaragarria izan da, ikastetxeetan lasaitua hartu dute hainbeste denboraz estresatuta eta borrokan ibili

ondoren”. Izan ere, Balear Uharteetako ikastetxeen %80k ez zuen onartu TIL eredua. STEI, CCOO eta UGTk aurkeztutako helegiteen arabera, Konstituzioaren, Autonomia Estatutuaren, Hizkuntza Normalizatorako Legearen eta LOMCE beraren kontrakoa da TIL.

Orain Auzitegi Gorenera jo deza ke Gobernuak, baina Tortellen ustez, “epai honek gure aldarrikapenak berresten dituela uste dugu eta ‘ez-hezkuntzaren’ kontseilari Joana Maria Campsen dimisioa eskatzeko argudio gehiago ditugu”.

BLOCKS, PUB. EDU



930 ikasle Ipar Kataluniako bressoletan

930 IKASLEK hasi dute 2014-2015 ikasturtea katalanezko murgiltze eredua egiten duten Bressola eskoletan, Ipar Katalunian. Iaz baino 120 ikasle gehiago dira eta asko plazarik gabe geratu dira.

Eva Bertrana Bressolako zuzendariak *El Punt Avui* egunkariari adierazi dionez, murgiltze ereduan ikasteko eskaera asko izateak esan nahi du Ipar Katalunian katalanaren normalizazio bidean “irabazten ari garela”, baina bestetik, triste daude haurrak katalanez eskolaratu nahi dituzten Ipar Kataluniako guraso guztiek horretarako aukerarik ez dutelako.

Eskariari erantzun nahian hiru eskola handitu dituzte, ama eskolak eta Lehen Hezkuntzakoak. 2015-2016 ikasturterako Perpinyako institutua handitzea edo berria eraikitzea nahi dute. Epe luzera berriz, lizeoa eraikitzeak ilusioa dute, 2 urte dituztenetik katalanez ikasten ari diren haurrek eskola garai osoa katalanez egitea nahi baitute.

EKONOMIAREN TALAIA

Dirua badago, borondate politikoa falta da

INDUSTRIA FARMAZEUTIKOA negozio handia dela ez da sekretua inorentzat. Duela 20 urtetik C hepatitis duen Legazpiko pertsona batek, Lakuako gobernua salatu zuen joan den astean, honek ukatu egin diolako %95eko eraginkortasuna duen –baina oso garestia den– Sovaldi botikarekin tratatzea. Bi asteko tratamenduak 80.000 euro balio ditu. Beste 3.000 herritar daude Espainiako Estatuan urgentziaz botika hori behar dutenak. Ez badute lortzen, hil egingo dira.

Egia da botikaren prezioa oso garestia dela. Baina egia da, baita ere, heriotzatik libratzen dituela gaixo daudenak. Gobernuak erantzukizun hori bere gain hartu behar lukete eta industria farmazeutikoarekin negoziatu, prezioa izugarri jaitsi dezan. Eta bitartean, botika hori eman beharko liokete behar duenari. Ez badute halakorik egiten, kapitalismoaren krisiak eragindako murrizketen parte izango dira. Gastu publikoaren lehentasunak zehaztu behar dira. Bizitza salbatzeak politika ororen lehen egin-kizuna izan behar luke. Gainera,

dirua ez da falta, ondo banatzea da kontua. Esaterako, Lakuak norabide eta geltokirik ez duen AHTn gastutako milaka milioiak bideratu ditzake halako kasuetarako. Euskal Herriko presio fiskala Europar Batasunaren batez bestekoaren parean jarriko bagenu, 6.500 milioi euro gehiago izango genituzke diru-kutxa publikoetan. Irizur fiskala jazarritz gero beste milaka milioi euro batzuk lortuko lirateke.

Hortaz, industria farmazeutikoak prezioak jaitsi behar ditu, baina gobernuak gastu publikoaren lehentasuna zehaztu. Eta bizi-tzak salbatu eta herritarren osasuna hobetu. Horretarako diru ekarpen gehiago bilatu beharko dituzte, presio fiskalaren bidez edo irizur eta paradisu fiskalen kontra eginez, eta ustelkeria erotik kenduz. Dirua soberan lukete, Legazpiko pertsona honek eta gaixo guztiek botika garestiok eskura izan ditzaten. Dirua bada-go, borondate politikoa falta da.

Juan Mari
Arregi





Benta Aldea, 10
ORIO 20810
 ☎ 629 52 52 63
 info@lusarbe.com
 www.lusarbe.com